

## Baloreen zaintza, administrazio eta bitartekaritzako kontratua

bulegoa	kontratua zk.

### kontratugileak

izen-abizenak edo sozietatearen izena	lotura mota	ifz

helbidea, kalea, plaza, zk.

pk	herria

telefonoa	kontu lotetsia		
	erakundea	bulegoa	kd
			kontu zk.

erabilgarritasuna	interesako kontu berezia		
	erakundea	bulegoa	kd
			kontu zk.

gaitasun / egokitasun titularra	ifz	MiFID sailkapena

ordezkaritza	ifz

Titularrak /-ek baloreen bitartekaritza, zaintza eta kudeaketaren kontratua arautzen duen baldintza klausula bilduma batu du /-te baita tarifa eta balorazio araudia ere.

Dokumentu hau sinatu aurretik, mesedez, irakurri dokumentu honen baldintza orokorren eranskinean agertzen den Datuen babesari buruzko oinarritzko

data

Kutxabank

bezeroa

Ahalordez  
Eduardo Ruiz de Gordejuela Palacio  
Txikizkako Negozioko Zuzendari Nagusia



Bilbon, Vicente María del Arenal Otero notarioaren aurrean  
2011/12/22an 1736 protokolo-zenbakiarekin emandako  
ahalordearen arabera



data	kontu zk.

### 1. Kontratatzaileak

Honako hauek dira kontratu honen alderdiak:

\* Kontratuan Titular gisa ageri den pertsona edo ageri diren pertsonak (aurrerantzean **BEZEROA**). Kontratu honetan lotura duten beste pertsona batzuk ere ager daitezke, esaterako, gozameduna, ahalordeduna, baimenduna, ordezkaria eta informazio-kudeatzailea.

\* Kutxabank S.A., Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta: 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa. A95653077 Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eman zaio (hemendik aurrera Kutxabank). Kutxabankek, Espainiako Bankuaren Erakunde Finantzarioen Erregistroan 2095, zenbakiarekin inskribatuta dagoenak, bigarren mailako honako merkatu hauetan hartzen du parte:

- Errenta Finkoa S.A.ko AIAF Merkatuko kide gisa.

- Espainiako Bankuko Zor Publikoaren Idaztoharren Zentraleko Erakunde Kudeatzaile da.

- Iberclear-en parte hartzen duen erakunde gisa.

- Bilboko Burtsaren kide da.

Bere egoitza soziala Kale Nagusia 30-32, 48009 - Bilbo eta webgune korporatiboa <http://www.kutxabank.com>.

Kutxabank, S.A. Kreditu Erakundearen Gordailuen Berme Funtsari atxikita dago, legez sortutako erakundeari, zuzenbide pribatuko erregimenean aritzen denari eta kreditu-erakundeetan eraturako dirutako eta baloretako gordailuak araudietan jasotako mugen eta gainerako aurreikuspenen markoan bermatzea xede duenari.

### 2. Xedea

Kontratu honek xede bikoitza du. Alde batetik, BEZEROak "Balore-kontu" bat ireki behar du gero hor balore higigarriak gehitzeko, "tituluetan" ordezkaturako nahiz "kontuko idazpenen" sistemak ordezkaturakoak, eta horrek esan nahi du gordailututako aktiboak zaindu eta administratu beharko dituela Kutxabankek, dibidenduak, interesak, bertaratze-primak, amortizazioak, kapital-itzulketak etab. kobratzeari dagozkion kudeaketak eginez, eta harpidetzak, primak, dibidendu pasiboak, etab. ordaintzekoak eta harpidetzak, trukeak, bihurketak eta abar baliatzeak ere bai, BEZEROak eskatutako egitekoarekin bat etorri.

Bestalde, Kutxabankek BEZEROari bitartekaritza-zerbitzuak (aurrerantzean "bitartekaritza") nola emango dizkion arautzeko xedea ere badu, bitartekaritza-zerbitzu gisa ulertuz bezeroak tresna finantzario batekin edo gehiagorekin ematen dituen aginduak hartzeko eta transmititzeko zerbitzuak ematea eta bezeroen konturako aginduak exekutatzeko, adierazitako jarduera horiek zein baldintzatan egingo diren ezarri, eta alderdiek erabiliko duten metodoa eta aginduak bidaltzeko eta jasotzeko moduak ere bai.

Hainbat titular dituen gordailu-kontu baterako aginduak egiteko aukera, edo pertsona ahalordedun batek edo baimendutako pertsona batek, kontratu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da. Kontratu honen xede den Balore-kontua erabat berezita dago Kutxabanken baloreen gordailu-kontu propioetatik.

### 3. BEZEROAREN sailkapena

Kontratu honetan, eman zaion sailkapena jakinarazten zaio BEZEOARI, aurrez jakinaren gainean jarrita zegoenari. Halaber, kategoria horretan aldaketa eskatzeko duen eskubidearen berri eman zaio, eta tratamendu horretatik erator litezkeen babes-murriztapenen berri emango dio Kutxabankek une horretan.

Bitartekaritza-zerbitzua Kontratu honetan xedatutakoaren arabera eta INBERTSIO-ZERBITZUEN PRESTAZIORAKO OINARRIZKO KONTRATUAN eta haren Eranskinetan xedatutakoaren arabera arautuko da. BEZEROak deklaratzeko dokumentu horiek jaso eta sinatu dituela Kontratu honen xede den zerbitzua eman baino lehenago.

Kontratu honetan xedatutakoaren eta INBERTSIO-ZERBITZUEN PRESTAZIORAKO OINARRIZKO KONTRATUAN xedatutakoaren artean desadostasunak badaude, Kontratu honetan xedatutakoa nagusituko da, baldin eta alderantzizkoa espresuki xedatzen ez bada.

Baldintza horietan espezifikoki aurreikusi ez diren alderdiei dagokienez, aipaturiko INBERTSIO-ZERBITZUEN PRESTAZIORAKO OINARRIZKO KONTRATUAN xedatutakoak aplikatuko dira.

### 4. Kutxabanken betebeharrak

Kutxabankek "Balore-kontuan" sartutako aktibo guztietarako bere gain hartuko du administrazio eta zaintzari dagokion lana, honako hauek egiteko: aktiboek dagozkien kupoi, dibidendu, eskubide, interes eta amortizazioen kobrantzak; harpidetza, prima eta dibidendu pasiboen jaulkitzaileei ordainketak eta beharrezkoak diren ekintza guztiak gordailututako tituluek beren balioa eta dagozkien eskubideak mantentzen dituzten, lege-xedapenekin bat etorri, eta hori guztia hemen aurreikusitako moduan.

Eskubide ekonomikoei dagokienez, BEZEROak adierazitako kontuan abonatu izan dadin izapidetuko da kobrantza.

Lehen aipatutako harpidetza, truke, bihurketa eta abarrera joko du Kutxabankek kontratuaren Titularrak eskatutakoaren arabera, BEZEROak bere "Balore-kontuari" dagokionez emandako beste aginduak artatuko ditu, arretarik handienarekin eta aplikatzeko den araudia betez, BEZEROaren interesa betetzen saiatuz une oro.

Lehen adierazitakoaren ondorioetarako eta BEZEROak instruktorek ez badu ematen esleitu zaizkion lehentasunezko harpidetza-eskubideei dagokienez, eskubide horiek salgai jarriko dira negoziazio-epaia amaitu aurretik, kapital-zabalkuntza liberatuetan izan ezik, horietan Kutxabankek harpidetuko baititu adjudikatutako eskubideen arabera dagozkion doako akzioak, eta sobera geratzen diren eskubideak salduko ditu, halakorik baldin badago.

BEZEROaren tresna finantzarioekin egindako eragiketak kontu globaletan ("omnibus kontuetan") erregistratu ahal izango dira atzerriko merkatuetan eragiketak egitean, merkatu horietako praktikak era horretako kontuak erabiltzea eskatzen badu. Era horretako eragiketek baloreen edo tresna finantzarioen aldi baterako murriztapena ekar dezakete, edo balore edo tresna horiek hondatzea edo galtzea edo hirugarren horren gain eragina izan lezaketen arrisku espezifikoaren, legezko arriskuen edo eragiketen arriskuen ondorio gisa tresna finantzarioetatik eratorritako eskubideak. Arrisku horiek legearen eskakizunak betez erredaktatuko dira (erakundearen eta kontu globalaren identifikazioa, hirugarrenaren herrialdea eta rating-a, hirugarren baten esku dauden bezeroen tresna finantzarioak eta hirugarren hori titular dutenak desberdintzea, omnibus kontu bateko gordailuaren emaitza diren arriskuak eta BEZEROaren eskubideak jabetza eta kaudimengabeziaren arloan, BEZEROaren tresna finantzarioak edo funtsak dituzten kontuak EBko kide ez den Estatu baten ordenamendu juridikoaren mende egongo direnean), eta idazkiaren kopia BEZEOARI bidaliko zaio komunikazioetarako ezarritako helbidera, posta elektronikoz edo aurrez BEZEROak zehaztutako beste edozein bitartekoren bidez, euskarri iraunkortzat jo litekeena, hain zuzen. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo une oro BEZEOen baloreen eta indarrean dauden eragiketen posizioa jakiteko beharrezkoak diren erregistroak mantentzeko Kutxabankek duen betebeharrari.

Kutxabankek BEZEROaren baloreak azpigordailuta ahal izango ditu hirugarren erakundeetan, eta horretarako beharrezko eskumen, arreta eta prestasunarekin jardungo du erakunde azpigordailuzaina hautatzerakoan eta izendatzerakoan, eta erakunde horren aldizkako berriuspena egingo du tresna finantzarioak edukitzea eta zaintzea arautzen duten xedapenei dagokienez. Nolanahi ere, BEZEROaren aurrean Kutxabankek Gordailuzain gisa erantzungo du. Kutxabankek ez ditu BEZEROaren baloreak azpigordailututako tresna finantzarioak edukitzea eta zaintzea arautu gabe dagoen herrialdeetan, baldin eta tresna finantzarioen izaerak hor gordailututa egotea eskatzen ez badu. Kutxabankek baimena eskatuko dio BEZEOARI EBko kide den estatu bati dagokiona ez den ordenamendu juridikoaren mende jartzea inplikatzeko duen Estatu batean tresna finantzarioak azpigordailutzeko.

Bezeroarenak diren tresna finantzarioak edo gordailuak dituzten kontuak EBko kide den Estatu bati dagokionaren desberdina den ordenamendu juridiko baten mende badaude edo egon behar badute, Kutxabankek horren berri emango dio bezeroari eta bere eskubideak desberdinak izan daitezkeela jakinaraziko dio.

### 5. BEZEROaren betebeharrak

BEZEROak, orobat, bere tituluei dagokienez eskatzen zaizkion instrukzioak bideratu beharko ditu, eskatzen zaion epean, eta bere gain hartu beharko du, eskatzen zaion agindua bideratzen ez badu, Kutxabankek bere iritzira jardungo duela BEZEOarentzat interesgarriena dela iruditzen zaion eragiketa exekutatzeko. Irizpide hori aurrez jakinaraziko dio BEZEOARI haren instrukzioak eskatuz bidaltzen dion komunikazioan.

Kutxabankek eskatu arren instrukzioak ematen ez zaizkion kasuan, BEZEROak, kontratu-dokumentu honen bidez, baimena ematen dio Kutxabanki mugaeguneratu aurretik ebaluatu gabe dauden harpidetza-eskubideak besterentzako —betiere merkatuak horretarako bide ematen badu—, kapital-zabalkuntza liberatutako harpidetzeko, baloreak eskuratzeko eskaintza publikoetara jotzeko eskusiorako edo zain dauden dibidendu pasiboak artatzeko BEZEROaren kontuaren kargura, eta kontu horretako saldoaren mugarekin.

### 6. Informatzeko betebeharrak

(UE) 2017/565 Erregelamendu Delegatuarekin bat etorri, Kutxabankek BEZEOari informatu beharko du erlazionatutako alderdiei buruz, aplikatutakoak badira, eta une bakoitzean aplikatzeko den araudiak ezartzen duen beste edozein alderdiri buruz ere bai.

Kutxabankek balore-kontuko mugimenduen eta egoeraren laburpenak bidaliz informatuko du, azken komunikazioak aurrekoak balioz gabetzen dituela ulertuz. Balore-kontua aldatzen duen mugimendu bat egiten den bakoitzean laburpena bidaliko da, eta, edozein kasutan, urtean behin.

data	kontu zk.

Kutxabanke hiru hilean behin eta idatziz bidaliko du Kontratu honen xede diren tresna finantzarioen posizioaren egoera. Bezeroak eskatuz gero, Kutxabanke maiztasun handiagoz helaraziko dio egoera hori, aurrez zehaztutako zailtasun kostu komertzial batekin. Kostu hori Kutxabanken tarifa-liburuan argitaratuta dago. Tarifa-liburua BEZEROaren esku dago [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunean.

Kutxabanke, halaber, amortizazio, truke, harpidetza, dibidendu, akzionisten batzar eta interesgarritzat jotzen diren bestelako egoera berezietan buruzko informazioa bidaliko du, eta egokituz jotzen diren bestelako informazioak ere bai —arrazoiz eskura ditzakeenak—, gordailututako tituluei buruzkoak edo balore-kontuan sar litezkeen beste batzuei buruzkoak.

Baloreen eskubide politikoei dagokienez, exekuzioa bideratzen saiatzeaz gainera, eragiten dietela jakindako inguruabarrei buruz informatuko du, horretarako nahikoa garrantzia baldin badute.

Kutxabanke bere gain hartzen du eskatzen zaion informazioa eta bere esku duen Balore Kontuari buruzko eta bertan gordailututako tituluei buruzko informazioa artatzeko konpromisoa. Bestalde, bitartekaritza-zerbitzuen prestazioari dagokionez, Kutxabanke BEZEROa informatuko du arretarik handienarekin haren aginduen harrerari dagokionez, eta haren eragiketei dagozkien gaiet buruz ere bai.

Kutxabanke, BEZEROak eskatuz gero, haren aginduaren egoerari buruzko informazioa bidaliko du idatziz. Exekutututakoan, bizkor emango du aginduaren exekuzioari buruzko funtsezko informazioa, ahal bezain laster exekuzioaren berri emanez eta exekuzioaren ondorengo egun baldiodunean beranduenez. Abisu horrek egindako exekuzioaren ezaugarrien xehetasunak izan beharko ditu. Horretarako eskumena duen hirugarren baten exekuzioaren berrespena jasotzen badu Kutxabanke, komunikazioa bezeroari egingo zaio berrespena jaso eta hurrengo egun baldiodunean beranduenez. Kutxabanke bezeroa informatuko du erakundeak BEZEROaren baloreen gain duen edo izan dezakeen berme edo atxikipeneko edozein eskubideri dagokionez, edo balore horiekiko duen edozein konpentsazio-eskubideri dagokionez ere bai.

### 7. Titulartasuna eta ahalordeak

Balore-kontua Titular baten edo gehiagoren izenean ireki daiteke, eta titularrek pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezke, legezko nahikoa gaitasun dutenak. Balore-kontuaren titularren jabetzakoak diren titulua soilik sartu ahal izango dira balore-kontuan, eta ezingo dira beste domeinu-arabide batekoak sartu, ezta "eramaile-baloreak" baldin badira ere.

Balore-kontua gozamenaren figura eduki ahal izango du; kasu horretan, lehen aipatutako baldintzak betetzeaz gainera, sartzan diren titulu guztiei eskatutako zaie legez ezarrita edukitzea gozamenaren erregimena Balore-kontuan izaera hori aitortzen zaion pertsonaren alde.

Titularrek, eta egoki bada gozamenaren ere bai, ahalordeak eman ahal izango dituzte pertsona bati edo gehiagori informazioa eskatzea baimentzeko, aipatutako kontuari buruzko instrukzioak emateko, salerosketako aginduak bideratzeko etab. Ahalorde horien eraginkortasunerako nahitaezkoa izango da Kutxabanke askiespena egitea, eta, beraz, behar adinako aurrerapenarekin aurkeztu beharko dira eta Balore-konturako erregistratu nahiz diren eskumenak espresuki adierazita.

Titularkidetasun bereizgabearen kasuan, Titularrek baimena ematen diote elkarri euretako edozeinek, beraien sinadura soilaren bitartez, Balore-kontuko eskubide eratorri guztiak erabili ahal izateko, gordailututako tituluaren erabilera edo pignorazioa barne.

Titularkidetasun bereizgabearen izaera hori amaitu egiten da titularretako edozein heriotzagatik, eta une horretan hildakoaren jaraunselek hildako beste titularren oinordekoekin edo bizirik dauden gainerako titularrekin konkurriratu beharko dute, egoki denaren arabera.

Halaber, Titularrek pertsona bat izendatu ahal izango dute "informazio-kudeatzaile" gisa Balore-kontuaren informazioa eskuratzeko helburu eskusiboarekin.

### 8. Produktuen kontratazioari dagokion komenigarritasunaren ebaluazioa.

Bitartekaritza-zerbitzua eman aurretik, Kutxabanke BEZEROarengandik jaso beharko du, Bezero Xehekaria bada, hark kontratatzea proposatzen zaion inbertsio-produktu edo -zerbitzu espezifikoko inplikatzan dituen arriskuak ulertzeko beharrezkoak diren esperientzia eta ezagutzak badituela erabakitze beharrezko informazioa, INBERTSIO-ZERBITZUEN PRESTAZIORAKO OINARRIZKO KONTRATUAN ezarritakoarekin bat etorritik.

Kutxabanke BEZEROari jakinaraziko dio bere ezagutza, finantza-egoera eta inbertsio-helburuei buruzko informazioa eguneratzeko prozedura, Kutxabanke zerbitzua emateko ondorioetarako, egoki denean.

### 9. Bitartekaritza aurrera eramateko modua

BEZEROak Tresna Finantzarioei buruzko salerosketa-aginduak bideratu ahal izango ditu, bai presentzialki Kutxabanken bulegoetan, bai beste bitarteko batzuen bidez, "Urruneko Kutxabank zerbitzuan" adibidez (telefonozkoa nahiz Internet bidezkoa), autozerbitzuko terminaletan eta etorkizunean gehitzen diren bitartekoetan eta ahalbidetzen dutenetan.

Horretarako, dagokion agindua sinatuko du bulegoan edo beharrezkoak diren gakoak balidatuko ditu transmisiorako aukeratutako kanalaren arabera.

"Urruneko Kutxabank zerbitzuan", txartelen edo etorkizunean gehitzen diren kanal berrien kontratuen baldintzek osatzen dute kontratu, hau izaera bereziagatik kontratuaren irismenetik kanpo geratzen diren egoerak edo formak aurreikusten diren puntuetan, eta indarrean jarraituko dute hemen adierazitako gainerako baldintzek. BEZEROak aginduetan ezarri ahal izango du, plazaz, eragiketaz, motaz eta titularen klaseaz gainera, kopurua edo erreferentziak prezioa eta aginduen iraupena. Azken hori exekuzioa egin behar duen Erakundeak edo agindua exekutatu beharreko merkatuek baldintzatuta egon daiteke, eta horren berri emango zaio BEZEROari. Prezioari dagokionez, egikaritze-prezio bat edo salerosketako gehieneko/gutxieneko prezio bat zehazten ez badira, ulertuko da agindua merkatuko prezioan bideratuko dela exekuzioari ekiten zaion unean.

Kutxabanke bizkor eta zehaztasunez erregistratu eta esleituko ditu BEZEROaren aginduak, jasotako aginduen informazio modu desegokian ez dela erabiltzen zainduz. Horretarako, agindua Agindu Frogagiriaren Fitxategi batean erregistratuko da, harrerako data eta ordua eta gainerako xehetasunak adierazita, eta fitxategi horren segurtasuna eta konfidentialtasuna zainduko dira.

Kutxabanke agindu batzuk onartzeak BEZEROaren funts-hornidura edo haren izenean gordailututako balore erabilgarriak egotea eskatzen du, eta, beraz, Kutxabanke uko egin ahal izango die inguruabar hori egiaztatu ez bazaio.

### 10. Aginduen tratamendua

Kutxabanke modu sekuentzian transmitituko ditu aginduak, baldin eta aginduaren ezaugarriek edo merkatuko baldintzek horretarako bide ematen ez badute.

Aginduak metatu ahal izango dira, betiere arazoiz estimatzen bada horrek ez duela agindu horietako ezin kaltetzen. Halako kasuetan, aginduen exekuzio partzialak dagozkien eragiketen banaketa eta esleipena emandako aginduekiko proportzionala den moduan egiten dela zainduko da.

Gainera, agindua metatuko zaion bezeroari Kutxabanke jakinaraziko dio metaketa hori kaltegarria gerta dakiokela.

Metaketa Kutxabanken agindu propioekin egiten bada, bezero xehekariaren aginduak lehenesteko kontsigna emango da.

BEZEROak aginduak errebotatu ahal izango ditu soilik aginduak ez badira exekutatu eta merkatuko baldintzek eta transmisio denborek ez badute horretarako bide ematen.

Kutxabanke zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jardungo du bere bezeroen interes onenean, interes-gatazkei dagokienez ezarritako baldintzak betez.

Merkatuko eragiketak merkatuen ordutegietan egiten dira, eta, beraz, gerta daiteke itxiera-ordutik gertu dauden aginduak egun berean ezin bideratu izatea, hori aginduen transmisioan esku hartzen duten telekomunikazioen egoeraren eta haren konexio-softwarearen arabera izaten baita. Kutxabank ez da izango ildo horretan geratzen diren atzerapenen edo gorabeheren erantzule, Kutxabanken kontrolatik kanpo dauden kausetatik eratorri badira.

Aginduak tratatzeko politikaren laburpen bat ematen zaio BEZEROari kontratu honekin batera.

### 11. Kostuak eta gastuak

Kutxabanke kontratazio-datarekiko behar adinako aurrerapenarekin emango dio BEZEROari baloreen zaintza, administrazio eta bitartekaritzaren kontratu honi lotuta BEZEROak ordaindu beharreko kostu eta gastuei buruzko informazio egokia.

### 12. Aplikatzekoak diren komisioak eta balorazio-arauak

Balore Kontuari gordailutzea, administrazio eta bitartekaritzaren kontzeptuarekin aplikatzekoak diren komisioak, haien maiztasuna, baloratzeko arauak eta eta egindako eragiketei dagozkien baloreen eta funtsentzat erabilgarri jartzeko gehieneko epeak izango dira, hain zuzen, esplizituki adierazten direnak kontratu honekin batera BEZEROari ematen zaion eranskinean. Aipatutako komisioak aldatu ahal izango dira, baina Kutxabanke BEZEROari aldaketan berri eman beharko dio, indarrean sartzeko epea zehaztuz, eta aldaketak bezeroarentzako kaltegarriak badira, epe hori ezingo da izan hilabete baino txikiagoa komunikazioa jasotzen denetik hasita.

### 13. Pizgarriak, interes-gatazkak, aktiboak babesteko politika eta "best execution"

Kutxabanke hirugarrenengandik jaso ahal izango ditu "Balore Kontuaren" kontratu honi lotutako ordainketak. Kutxabanken pizgarrien politikarekin bat etorritik, ordainketa horiek gauzatu ahal izango dira soilik hirugarrenaren ordainketan inguruabar hauek gertatzen direnean:

(i) BEZEROari emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko sortu baldin bada, eta

data	kontu zk.

(ii) Kutxabankek, BEZEROaren mesedetan, zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jokatzeko betebeharrak galarazten ez badu.

Kutxabankek argi eta garbi jakinaraziko dio BEZEROari, osorik eta modu zehatz eta ulergarrian ordainketa horren izatea, izaera eta zenbatekoa, edo zenbatekoa zehaztu ezin bada, kalkulatzeko modua zein den, "Balore Kontuaren" kontratu honekin lotutako zerbitzuak eman aurretik.

Kutxabankek ex ante zehaztu ezin duenean ordainketa horren zenbatekoa, baina BEZEROari azaldu dionean zenbatekoa kalkulatzeko metodoa, Kutxabankek ex post eman beharko dio BEZEROari ordainketaren zenbateko zehatzari dagokion informazioa.

Halaber, gutxienez urtean behin eta Kutxabankek pizgarri jarraituak jasotzen dituen bitartean, banaka informatuko ditu BEZEROak pizgarrien benetako zenbatekoari buruz.

Kutxabankek ex ante eta ex post modu generikoan deskribatu ahal izango ditu kontratu honi lotuta jaso ditzakeen mozkin ez-monetario txikiak.

Kutxabankek esku hartu eta pizgarriak jasotzen dituen errenta finkoko jaulkipenak ezartzen badira, bezeroari sinatzeko aurkezten zaion erosketa- edo harpidetze-aginduan zehaztuko dira.

Bestalde, eta BEZEROari inbertsioi zerbitzuen prestazioi oinarrituko kontratuarekin edo kontratua egin aurreko informazio gisa eman zaion alde batera utzita, interes-gatazken, aktiboen babesaren eta best execution politikak bulegoen sarean nahiz erakundearen webgunean kontsulta ditzake BEZEROak.

#### 14. Exekuziorik onenaren politika

Transmititutako aginduak BEZEROarentzat ahalik eta emaitza onenarekin exekuta daitezkeen bitartekoak jarriko ditu Kutxabankek, BEZEROaren instrukzio espresu bat dagoenean izan ezik, halakoetan instrukzio horiei jarraituz exekutatuak baitu agindua Kutxabankek.

Ildo horretatik, bezeroentzako emaitza onenak lortzeko transmisio-prozedurak azaltzen dituen Aginduak Exekutatuzeko Politika ezarri du Kutxabankek, exekuzio-zentroen eta zentroak hautatzeko faktoreei buruzko informazioa barne. BEZEROak adierazten du ezagutzen duela Kutxabankek Exekuziorik Onenaren Politika. Kontratu honetan adierazitakoarekin bat etorri agindu bat bideratzeak esan nahi du Bezeroak espresuki onartzen dituela agindu horrek duen arriskua eta Exekuziorik Onenaren Politika.

#### 15. Exekutatuzeko soilik diren aginduak

BEZEROak aginduak betetzera edo hartu eta transmititzera soilik mugatzen den inbertsio-zerbitzu bat kontratatu nahi duen kasuetan, Kutxabankek ez du haren komenigarritasuna ebaluatu beharko, baldin eta horri buruzko ohartarazpena egin bazaio eta honako baldintza hauek guztiak betetzen badira ("egikaritzea soilik"):

- aipaturiko zerbitzuak honako tresna finantzario hauetako batekin erlazionatuta daudenean:

i) merkatu arautu batean edo hirugarren herrialde bateko herrialde baliokide batean edo Negoziazio Sistema Aldebar (NSA) batean kotizatzen duten akzioak, sozietateetako akzioak direnean, eta Balore Higigarrien Inbertsio Kolektiboko Erakundeak (BHIKE) ez diren inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak eta eratorriak barne dituzten akzioak alde batera utzita,

ii) bonuak eta obligazioak edo zor titulizatutako beste forma batzuk, merkatu arautu batean, hirugarren herrialde bateko merkatu baliokide batean edo SMN batean negoziatzeko onartuak, eratorriak barne dituztenak edo bezeroari zer arrisku hartzen dituen ulertzea zailtzen dion egitura bat dutenak alde batera utzita,

iii) merkatu monetarioko tresnak, eratorriak barne dituztenak edo bezeroari zer arrisku hartzen dituen ulertzea zailtzen dion egitura bat dutenak alde batera utzita,

iv) BHIKEetako partaidetzak eta akzioak, inbertsioegileei, data lehenetsietan, algoritmo baten arabera kalkulatuak eta aktibo finantzarioen, indizeen, erreferentziako zorroren edo antzeko ezaugarriak dituzten BHIKEen bilakaerari, edo aipaturiko aktibo finantzario, indize, erreferentziako zorro edo antzeko ezaugarriak dituzten BHIKEei dagokien, prezio-aldakuntzak edo beste baldintza batzuk gauzatzeari lotutako ordainsariak ematen dizkieten BHIKE egituratuak alde batera utzita. (583/2010 zenbakiko Erregelamenduan (EB) erabakitakoaren arabera),

v) gordailu egituratuak, errendimenduari dagokionez edo muga-eguna baino lehen produktuen arteko kostuari dagokionez, bezeroari zer arrisku hartzen dituen ulertzea zailtzen dion egitura bat dutenak alde batera utzita,

vi) beste tresna finantzario batzuk, atal honen xedeetarako konplexuak ez direnak.

- Bitartekaritza-zerbitzua BEZEROaren ekimenez ematea.  
- Kutxabankek argi eta garbi informatuta izatea BEZEROa zerbitzu horren prestazioan ez dagoela behartuta eskaintako tresnaren edo emandako zerbitzuaren egokitzapena ebaluatzea eta, ondorioz, BEZEROak ez duela portaera-arau egokien babesik.

#### 16. Likidazioa

Aginduak aginduan espezifikoki adierazitako ageriko kontuan likidatuko dira, edo halakorik egon ezean, oro har BEZEROak era horretako eragiketarako lotutako kontuan.

Erosketa-aginduak, harpidetze-aginduak edo kontuan kargatzea inplikatzeko dutenak artatzeko, BEZEROak behar adinako funts-hornidura egin beharko du. Horretarako, BEZEROak baimena ematen dio Kutxabankek, agindua transmititzean zuhurtziazko saldo-atxikipen bat egiteko, eragiketaren zenbatekoarentzat egokia, eta behin betiko likidazioa egin aurretik. BEZEROak egindako agindu bat artatu ondoren ez badago horretarako nahikoa funts adierazitako kontuan, Kutxabankek baimenduta dago osorik edo partzialki kargatzeko eragiketaren zenbatekoa BEZEROaren izenean dagoen edozein kontutan, edo BEZEROaren titulartasuna duten aktibo finantzarioak besterentzeko, estali gabeko zenbatekoari aurre egiteko.

Kutxabankek BEZEROaren aktiboak saldu behar baditu, horren berri emango dio 10 egun baliadun lehenago gutxienez, eta epe horretan salmenta egin ahal izango du egokia den funts-hornidura eginez. Lehen aipatutakoaren ondoren oraindik kopururen bat gauzatzeko gelditzen bada, Kutxabankek baimena du kopuru hori BEZEROari erreklamatzeko, Kontu Korranteetan zorpekoetarako ezarritako dagoen interes-tasaren arabera interesegaitza gainera. Interes-tasa hori Kutxabankek webgunean argitaratuta dago ([www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es)).

#### 17. Kapitalak zurriztearen eta terrorismoa finantzatearen prebentzioa

BEZEROak eta Kutxabankek une oro beteko dituzte kapitalak zurriztearen eta terrorismoa finantzatearen prebentziorako arauak. Alde horretatik, BEZEROak deklaratu du kontratu honi lotutako eragiketarako Kutxabankek esku jartzen dituen dirua eta aktiboak, zehazki Balore Kontuan, legezko jardueretatik ateratakoak direla.

#### 18. Lotutako ageriko kontua

BEZEROak kontratu hau bere titulartasuneko kontu batekin lotu beharko du. Amortizazioen abonua eta balore-kontuaren berezko gastuen eta komisioen kargua lotutako kontuan egingo dira. Kontu horretan dibidenduak eta interesak ere abonatuak dira, xede horretarako beste kontu bat adierazi ez bada. Lotutako kontua ezeztatzen bada, baldintzen arabera adierazitako karguak eta abonua helbideratzeko aukera ematen duen beste kontu bat adierazi beharko du BEZEROak.

#### 19. Saldoen konpentsazioa

Balore Kontuak sortutako eragiketen ondorioz zorpeko bat agertzen bada lotutako kontuan, Kutxabankek baimena du eragiketa hori Balore Kontuko titulartateko edozein edo guztien izenean agertzen den edozein kontutan eragiketa hori kargatzeko, edo zenbateko horri aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren baloreak saltzeko, edo zor den zenbatekoa erreklamatzeko, edo salmenta egin ondoren ordaintzeke gelditzen den zenbatekoa eta kontu korranteetan zorpekoetarako ezarritako dagoen interes-tasaren arabera dagozkion interesak (Espainiako Bankuan erregistratua eta Kutxabankek webgunean argitaratua). Kutxabankek BEZEROaren baloreak saldu behar baditu, horren berri emango dio BEZEROari 10 egun baliadun lehenago gutxienez, eta epe horretan BEZEROak salmenta egin ahal izango du zorpekoaren funtsak birjarrit. Komunikazioan, konpentsatu beharreko zorra estaltzeko Kutxabankek baloreak zein ordenatan saltzeko asmoa duen jakinarazi beharko du. Halaber, Kutxabankek bezeroa informatuko du erakundeak BEZEROaren tresna finantzarioen gain duen edo izan dezakeen berme edo atxikipeneko edozein eskubideri dagokionez, edo tresna horiekiko duen edozein konpentsazio-eskubideri dagokionez ere bai.

#### 20. Iraupena

Kontratu hau behin betiko izaerarekin egiten da, baina edozein unetan hutsaldu ahal izango da alderdietako edozeinek nahi badu. Kutxabankek hutsalzte horren berri eman beharko du hilabete lehenago gutxienez, baldin eta ez bada komisioak ez direlako ordaindu bezeroarekin kreditu-arriskua dagoelako, kapitalak zurriztearen eta terrorismoa finantzatearen prebentzioko edo merkatu-abusuko arauak ez direlako bete; halako kasuetan Kutxabankek kontratua hutsaldu ahal izango du berehala.

Kontratuaren desegitea bezeroak nahiz Kutxabankek eskatuta gertatzen denean, Kutxabankek likidatu egingo ditu aldi bakoitzerako ezartzen diren komisioak, hasita dagoen eta kontratu-harremana bukatzen den unean amaitu gabe dagoen aldiari dagokion zati proportzionala.

data	kontu zk.

Kontratua desegin aurreko aurreabisu-epea amaitu aurretik Kutxabankek ez badu jaso baloreak eta finantza-tresnak beste erakunde batera transferitzeko instrukzioak, balore eta tresna finantzario horiek BEZEROaren esku geratuko dira, Kutxabanken titulua administratzeko erantzukizuna bertan behera utziz eta hura balore eta tresna finantzarioak judizialki kontsignatzeko baimenduta geratuz —izapidetze-gastuak BEZEROaren kargura izango dira—. Baloreak eta tresna finantzarioak transferitu edo judizialki kontsignatu bitartean, zaintzatik eratorritako komisioak eta gastuak sortzen jarraituko dute.

### 21. Heriotza

Titularren edo titular jaraunseleatoren bat edo gainerako titularren heriotza gertatuz gero, kasu bakoitzean, une bakoitzean indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoa bete beharko da eta jaraunselek kausatzailearen ondorengo izateko edo gordailututako baloreak baliatzeko eskubidea egiaztatu beharko dute, egoki diren betebeharrak fiskalak betetzeko.

### 22. Legediak hala behartzen dituen atxikipenak

Legez gaitutako agintaritzak edo organismoen aginduen ondorioz, kontratu honen objektu diren baloreak enbargatzen badira, Kutxabankek ez ditu artatuko betetzeari dagokionez jasotako enbargo-eginbideekiko kontrakoak diren BEZEROaren aginduak. BEZEROari dagokio dena delako organismoaren aurrean beharrezko diren kudeaketak egitea, atxikitako baloreen erabilgarritasuna berriro eskuratzeko zein enbargo gauzatzeagatik zentzuzkoak nola erabiliko diren jakiteko, hura gertatu bada. Legezko eragozpenik ez badago, Kutxabankek bere esku duen informazio guztia eta enbargoaren eta atxikipenaren inguruabarrei lotutako informazio guztia emango dio BEZEROari.

### 23. Baldintzen aldaketa

Baldintza orokor horien aldaketa Kutxabankek proposa dezake, modu pertsonalizatuan, gutxienez hilabete bateko (1) aurrerapenarekin edota aldaketa egiten den unean jakinarazpen horretarako indarrean dauden legezko prozeduren arabera. Komunikazio pertsonalizatu hori bezeroa kaltetzen duten tarifa, komisio edo gastu jasanarazgarriei badagokiek, indarrean sartu baino hilabete bat (1) lehenago egin beharko da gehienez.

Aldaketak ez onartzeak kontratu hau hutsaltzea eragingo du.

Alabaina, tarifa BEZEROarentzat argiro mesedegarria izango balitz, berehala aplikatuko da.

### 24. Izaera pertsonaleko datuak

Kontratu hau formalizatzeko BEZEROak emandako izaera pertsonaleko datuei aplikatu beharreko erregimena eta lehendik eragiketa eskatzeko eta aztertzeko emandako datuak eta Kutxabankeki duen harremana mantentzeko eta garatzeko ematen direnak arautuko dira Kontratu honen Eranskinen xedatutakoaren arabera. Eranskin hori kontratuaren atala da.

### 25. Jakinarazpenak eta helbidea

Edozein jakinarazpen-mota bidaltzeko, BEZEROak hauek zehazten ditu:

- “Lineako bankua” zerbitzu telematikoen postontzia, “Urruneko Kutxabank” zerbitzua kontratatuta edukiz gero.
- helbide elektronikoa, posta elektronikoen zerbitzua kontratatuta edukiz gero.
- kontratu honetan adierazitako posta-helbidea, zerbitzu horiek kontratatuta ez baditu.

BEZEROak Kutxabanki jakinarazi behar dio helbidea aldatuz gero eta helbide elektronikoa eta posta-helbidea aldatuz gero gutuneria-ondorioetarako, jakinarazitzat jotzen baitira azkena erregistratutako helbidera Kutxabankek bidalitako komunikazioak.

BEZEROak Kutxabankera jo ahal izango du edozein bulegotan edo posta-gutuneriaz edo posta elektronikoz. Nolanahi ere, eragiketa bat egiten ari den pertsona modu fede-emailean identifikatzea eskatzen duten kudeaketak presentzialki “Urruneko Kutxabank” zerbitzuaren bidez (telefonozko edo Internet bidezko) edo horretarako jartzen diren bestelako bitartekoen bidez egin beharko dira, ematen diren gakoak edo sarbide-identifikatzaileak erabiliz eta jarduketak-kanal horien kontratu espezifikotik aurreikusitakoarekin bat etorriz.

### 26. Komunikazioak eta kontratuaren kopia

Alderdiak adosten dute komunikazioak beren egoitzetara zuzentzea edo adierazitako helbideetara, eta beste alderdiari aldaketan berri ematera behartzen dituzte beren buruak.

Bezeroak Kutxabankera jo ahal izango du kontratu honi buruzko aginduak emateko edo balizko hutsaltze bat formulatzeko; kontratua sinatzeko erabilitako bideak erabili ahal izango ditu, edo Kutxabankek in esanbidez gaitutakoak edo azken honek haren alde jarri ahal izan dituenak.

BEZEROA gaztelaniaz komunika daiteke erakundearekin eta baita dokumentuak eta dokumentu horiei buruzko informazioak jaso ere eta, autonomia-erkidegoko araudiak hala aurreikusten duen kasuetan, baita Espainiako Estatuak ofizialtzat aitortuta dituen beste hizkuntzetan ere. Kontratu-harremanaren edozein unetan, Titularrak Kutxabankengandik eskura dezake, paperean edo beste euskarri iraugarri batean, kontratu-baldintzen kopia bat. Era berean, edozein unetan eskuratu ahal izango du BEZEROak inbertsio-zerbitzuen prestaziorako oinarritzko kontratuaren baldintza orokorren eta kontu aktibo eta pasiboetako kargu- eta bonu-eragiketen balorazio-arauen kopia bat. Gainera, bi dokumentu horiek edozein unetan kontsultatu ahal izango dira [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) helbidean.

### 27. Komunikazio komertzialak

Informazioaren Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuen Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kutxabankek BEZEROari jakinarazten dio jakinarazpen komertzialak bidaltzeko asmoa posta elektronikoz edo komunikazio elektronikoko beste edozein bitartekoren bitartez.

Aurka egiteko eskubidea erabil dezakezu kontratu honetako eranskinen, datuen babesaren atalean, ezarritakoarekin bat etorriz.

### 28. Gordailuen berme-funtsa

Kutxabank, S.A. Kreditu Erakundearen Gordailuen Berme Funtzari atxikita dago, une bakoitzean legez aurreikusitako gehieneko mugaraino bermatzen duen estaldurarekin, gaur egun 100.000 eurokoa dena erakunde eta bezero, <http://www.kutxabank.es> webgunean jakinarazten den moduan.

### 29. Gorabeherak eta erreklamazioak izapidetzea

Gorabeherak ebazteko, normalean eragiketarako egiteko erabiltzen duen Entitatearen bulegora joan ahal izango da BEZEROa, eta, jasotzen duen erantzuna gogobetekoa ez bada, erreklamazioa jarri ahal izango du, Kutxabankek Bezeroentzako Arreta Zerbitzura zuzenduta (Kale Nagusia 30-32, 4. Solairua, 48009 - BILBO), aipatutako Zerbitzuaren Funtzionamendu Araudiarekin bat, eta kexa edo erreklamazioa aurkeztu aurretik agintari eskudunek ezarritako prozeduren arabera (prozeduren berri modu orokorrean emango da Kutxabanken bulego guztietan eta webgunean). Aipatutako Kutxabankek Bezeroentzako Arreta Zerbitzuan kexa edo erreklamazio bat aurkeztea BEZEROak agintari eskudunen aurrean kexa edo erreklamazio bat aurkeztu ahal izateko bete beharreko aurretiazko instantzia bat da, BEZEROak aipatutako Kutxabankek Zerbitzutik jasotzen duen erantzuna gogobetekoa ez bada, edo erantzuna epearen barruan ematen ez badu Zerbitzuak.

### 30. Kontratua, legeria aplikagarria eta gainbegiratzea

Kontratu hau merkataritzako kontratu bat da, eta bertako estipulazioetan ezarritakoaz gainera Baloreen Merkatuaren legeriak ezarritakoaren arabera arautuko da.

Horretarako, jardun-eremu honetan Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratzen du Kutxabank. Comisión Nacional del Mercado de Valores Calle Edison nº 4, 28006– Madrid. Tel.: 915 851 500. Webgunea: [www.cnmv.es](http://www.cnmv.es). Noizean behin webgune hori kontsultatzea gomendatzen da, legeria aplikagarriari buruzko informazioa eta inbertsio-zerbitzuak eskaini ditzaketen Erakundeak buruzko informazioa eskaintzen baitu eta, gainera, inbertsiogilearentzat interesgarria den informazioa ere ematen baitu. Bestalde, alderdi kontratatzaileak honako hauetan aurreikusten diren portaera-arauen eta informazioa emateko eskakizunen mende jartzen dira: urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Baloreen Merkatuaren Legearen testu bategina onartzen duena, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2014/65EE Direktiba, tresna finantzarioen merkaturik buruzkoa (“MiFID II”), eta une oro indarrean dagoen araudia, MiFID II garatzeko eta exekutatzeko araudia barne.

### 31. Eskumena

Kontratu hau eta Inbertsio Zerbitzuen kontratu espezifikoen interpretatzeko eta beteazteko sortzen diren gorabehera guztien ardura BEZEROaren bizilekuko epaitegi eta auzitegiei dagokie, edo legez horiei aplikagarri zaien eskumenarenak.

Kontratu hau sinatuz gero, sinatzaileak baldintza orokorrekina eta osagarri zaizkien Eranskinarekin erabat ados dagoela adierazten du.

## Balore Merkatuko zerbitzu eta eragiketetako tarifak

BITARTEKARITZA ERAGIKETETARAKO TARIFAK	Merkatua	%	Minimoa(€)
Errenta Aldakorreko baloreen bitartekaritza (1)	Espainiakoa	0,60	9
	Atzerrikoa	0,50	30
Errenta Finkoko baloreen salerosketa (2)	Espainiakoa	0,35	6
	Atzerrikoa	0,50	30
Harpidetza-eskubideen salmenta edo erosketa (3)	Espainiakoa	0,35	1
	Atzerrikoa	0,50	30
Saltzeko Eskaintza Publikoetan egindako erosketak	Espainiakoa	0,35	6
	Atzerrikoa	0,50	30
Erosteke Eskaintza Publikoetan egindako salmenta	Espainiakoa	0,35	6
	Atzerrikoa	0,50	30
Warranten salmenta edo erosketa	Espainiakoa	0,35	6
	Atzerrikoa	0,50	30
Warranten erabilera aurreratua	Espainiakoa	0,30	3
	Atzerrikoa	0,30	4,5
Araututako bigarren mailako merkatuetan negoziazioan onartu gabeko baloreen erosketa edo salmenta		0,35	6
Baloreen transmisioa ebazpen judizialen, dohaintzen, testamentu bidezko titulartasun-aldaketen ondorioz eta salerosketa ez den tituluaren beste transmisio-eragiketa batzuk.	Espainiakoa	0,35	3
	Atzerrikoa		20
Esleitu gabeko enkante lehiakorretan parte hartzeko aginduak		0,35*	6

HARPIDETZA ETA ESLEIPENA TRUKATZEKO ERAGIKETEN TARIFAK	Merkatua	%	Minimoa(€)
Errenta Aldakorreko, Finkoko eta bestelako baloreen harpidetza (2)(4)	Espainiakoa	0,35*	3
	Atzerrikoa	0,35	30
Baloreen trukeak, bihurketak eta esleipenak (5)	Espainiakoa	0,35*	3
	Atzerrikoa	0,35	30

ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAREN ERAGIKETENGATIKO TARIFAK	%	Minimoa(€)
Lehen mailako merkatuetan osorik edo zatika esleitu gabeko lehia-enkanteetan partaidetzazko aginduak jasotzea eta izapidetzea	0,35*	6
Erakundearen bidez lehen mailako merkatuetan egindako harpidetzak	0,35*	6
Araututako bigarren mailako merkatuetako eragiketak	0,35*	6
Zaintza eta administrazioa (Altxorraren Letrak salbuetsita) (6)	0,35*	5
Zatikako edo erabateko amortizazioak	0,30	3
Beste erakunde kudeatzaile batera intsuldatzea	0,35*	Gutxienez 350

BALOREEN ZAINZA ETA ADMINISTRAZIO ERAGIKETEN TARIFAK		Merkatua	%	Minimoa(€)
Titulu fisiko eta kontuko idazpenen bidez ordezkaturako baloreen mantentzea, zaintza eta administrazioa (6)	Errenta Aldakorra	Espainiakoa	0,06	5
		Atzerrikoa	0,35	18
	Errenta finkoa	Espainiakoa	0,35*	5
		Atzerrikoa		18
	Nominal definiturik gabeko aktibo eta warrantak	Espainiakoa	0,06	5
		Atzerrikoa	0,35	18
Baloreak beste erakunde batera intsuldatzea	Errenta Aldakorra	Espainiakoa	0,35	Gutxienez: 350
		Atzerrikoa	0,50	Gutxienez: 500
	Errenta finkoa	Espainiakoa	0,35*	Gutxienez: 350
		Atzerrikoa	0,50*	Gutxienez: 500
Dibidenduen, kupoen eta aldiaren beste errendimendu ekonomiko batzuen kobrantza (7)	Espainiakoa	0,30	1,20	
	Atzerrikoa	1,5	2	
Batzar Nagusietara joateagatik primak kobratzea (7)			0,25	1,5
Funtsetako ekarpenak dibidendu pasiboak ordaintzeagatik, zintzilik dauden ordainketak, jaulkipen-primak eta abar	Espainiakoa	0,35	3	
	Atzerrikoa		30	
Kontuko idazpenen bidez ordezkaturako IICen partaidetza eta/edo akzioen zaintza (6)	Espainiakoa	0,06	5	
	Atzerrikoa	0,35	18	
Funtsak kobratzea baloreen zatikako edo osoko amortizazioengatik, murrizketak edo kapital itzulketak eta beste ordainketa batzuk	Espainiakoa	0,30	3	
	Atzerrikoa		4,5	
Titulu fisikoak zatika edo osorik entregatuta, intsuldatuta edo kenduta gordailuak eratzea edo balio gabetzea			Zenbateko finkoa balore mota bakoitzeko: 30	
Ziurtagiriak egitea			Zenbateko finkoa: 6	
Atzerriko erakundearen aurrean kontuan atxikipenak egiteagatik zergak itzultzeko egindako espedienteen izapide-tzeak			Zenbateko finkoa: 150	
Kotizazioetarako informaziora sarbidea izatea denbora errealean (Espainiako Merkatu Jarraitua)			Zenbateko finkoa: 5/hilean	

Tarifa guztiak eragiketen efektiboaren gainean kalkulatu dira, (\*) dutenak izan ezik, horiek nominalaren gainean kalkulatu dira.

(1) Errenta Aldakorreko Baloreen Eragiketarako tarifen aplikazioa:

-Espainiako Merkatuan: jakinarazitako tarifak Kutxabankekin aplikatutako komisioa eta esku-hartze gastuak biltzen ditu.

-Atzerriko Merkatuetan: tarifari eragiketaren efektiboaren gainean % 0,8 erreferentzia adierazlea aplikatuko zaio, beste erakunde batzuetako partaidetzaren ondoriozko kostuagatik.

(2) Espainiako merkatuko errenta finkoko baloreen eragiketarako tarifen aplikazioa: Espainiako Zor Publikoaren eragiketetan salbu.

(3) Eragiketa hauei aplikagarri zaizkien komisioak ezingo du inolaz ere eragiketaren zenbateko efektibo gaitu eskubideen salmenta bezeroaren agindu espresurik gabe egitean, bezeroaren interesaren eragiketa hori justifikatzen duen merkatuko erabilaren arabera.

(4) Eskaintza Publiko eta Harpidetzetako tarifak: Ez dira aplikagarri izango dagokien jaulkipeneko, Eskaintza Pu-blikoko edo Erakundearen informazio-liburuxkak hala aurretik ikusten duen kasuetan, eta erakundea kontratuz liburuxka horren arabera haren eraginpean ez badago.

(5) Tarifa jasotako tituluen balorearen gainean aplikatuko da.

(6) Atal honetako tarifak sei hilean behingoak dira. Aldi osoa baino gutxiagoz gordailuan utzitako baloreetarako, aplikagarri den komisioa proportziozkoa izango da, gordailuan utzitako egun kopurua kontuan hartuta eta tarifa orokorraren arabera. Zenbateko minimoa ere proportzioan aplikatuko da, baloreak gordailuan egon diren egun kopuruaren arabera. Komisioa kalkulatzeko oinarria sortzapean aldian gordailuan utzitako errenta aldakorreko baloreen, IICen partaidetza eta/edo akzioen eguneroko saldo efektiboaren batez bestekoa izango da. Errenta finkoko baloreetarako, haien balio nominala hartuko da kalkulua egiteko oinarri gisa. Atzerriko merkatuetan negozioa daitezkeen baloreen tarifa-erregimena nazio mailako baloreetan ere aplikagarri izango dira baldin eta bezeroak hala eskatuta edo egindako eragiketen eskakizunak direla eta, gordailuzain baten zaintzapean atzerrian utzitakoak badira.

(7) Erakunde jaulkitzaile batek atal hauetako eragiketen ordainketa helbidetu izanak ez du haiek aurkeztu di-tuena salbuetsiko dagozkion komisioak kobratzeko eskubideetatik, salbu eta erakunde jaulkitzaileak horiek espresuki bere kargura hartzen ez baditu jaulkipenaren informazio-liburuxkaren arabera.

**Gainera, erakundeak, dagokionean, honako gastu hauek jasalaraziko dizkio bezeroari:**

-Espainiako edo atzerriko bigarren mailako merkatuetako eragiketetan, "Bitartekaritza-eragiketarako errenta aldakorreko baloreen merkatuetan" (ETF partaidetzak eta akzioak) atalean kontuan hartutakoak ez diren finantza-tresnekin, bezeroari jasalaraziko zaizkio eragiketaren likidazio eta exekuziorako beharretakoak diren gastuak, erakundea ez denean dagokien merkatuko kidea.

-Merkatuak eta likidazioko sistemek jasalarazitako tasak eta kanonak.

-Mezularitza-sistemarik erabiliz gero, sortutako gastuak, bezeroak eskatuta erabili badira.

-Garraio-gastuak eta aseguruak, eragiketek baloreen lekualdatze fisikoa eragiten dutenean.

-Fede-emaile publikoaren esku-hartzearen, eskrituren eta justifikatutako bestelako kanpoko kontzeptu batzuen gastuak.

-Espainiako Bankuaren Idazpenen Zentralean negoziatutako eta komisionista gisa jardundako Zor Publikoari dagozkion eragiketetan, komisio-emaileari jasalaraziko zaizkio erakunde lagatzaileak aplikatutako gastu eta komisioak.

**Ohar orokorrak:**

Eragiketen definizioa, tarifak aplikatzeko : Eragiketatzat hartuko da balore mota bakoitzeko egindako eragiketa bakoitza, haren jatorria bezeroaren agindu bakarrari badagokio ere. Balore mota bakoitza izango da ezaugarri berak eta eskubide berberak dituen jaulkitzaile baten balore multzoa. Agindua exekutatzean edo haren baliozkotasuna iraungitzean sortuko da tarifa.

Euroarekin egiten ez diren dibisen eragiketetan baina bezeroak eurotan likidatzen dituenetan, aldaketa modu honetan egingo da:

- dibisen SALMENTA bat lotua duten balore-eragiketei (hau da, eurotan egindako likidazio batean) eroslearen prezioa aplikatuko zaie (ask). Horrelakoetan, eragiketaren likidazio-data baino bi egun baliodun lehenago Bloomerg-ek CETeko 14:00etan argitaratutako prezioaren milako 1,5 bat gehituko zaio.
- dibisen EROSKETA bat lotua duten balore-eragiketei (hau da, eurotan egindako likidazio batean), saltzailearen prezioa aplikatuko zaie (ask). Horrelakoetan, eragiketaren likidazio-data baino bi egun baliodun lehenago Bloomerg-ek CETeko 14:00etan argitaratutako prezioaren milako 1,5 bat kenduko zaio.



## Eranskina: kontu globalen erabilera atzerriko baloreetarako (Omnibus kontuak)

Kutxabankek zera jakinarazi nahi dio BEZEROARI, BEZEROAREN finantza-tresnekin burututako eragiketak kontu globaletan erregistratu ahal izango direla (“omnibus kontuak”) eragiketak kontu-mota hau erabiltzea eskatzen duten atzerriko merkatuetan burutzen direnean. Eragiketak burutzeko modu honek zera ekar lezake, aldi baterako murrizketa baloreen edo finantza-tresnen erabileran, narriadura baita eskubide hauen beraien edo finantza-tresna horietatik eratorritako eskubideen galera ere, aipatutako hirugarrenari eragin diezaioketen eta jarraian zehaztuko diren arrisku berezien, legezkoen eta eragiketen ondorioz:

Kontu globala duen entitatearen identifikazioa (hirugarrena)	EUROCLEAR	CITIBANK
Hirugarrenaren herrialdea	BELGIKA	AEB
Hirugarrenaren Ratinga	AA (STANDARD & POOR'S)	A+ (STANDARD & POOR'S)
Kontu globalaren titularraren identifikazioa	CECA-HIRUGARRENAK	CECA-HIRUGARRENAK
Bereizi egiten dira hirugarren baten eskuetan dauden bezeroaren finantza-tresnen eta hirugarrenarenak berarenak diren tresnen artean	<input checked="" type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	<input checked="" type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez
Kontu globaletako gordailutik eratorritako arriskuak	GARRANTZITSURIK EZ	GARRANTZITSURIK EZ

## Erakunde parte-hartzaile bateko bezeroen baloreen babesa

Kutxabankek, 909/2014 (EB) Erregelamenduaren 38. artikuluekin bat, BEZEROari jakinarazten dio Balore Merkatuaren Legearen (aurrerantzean "BML") testuategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuan araututako maila bikoitzeko erregistro-sistemaren esparruan BEZEROak segregazio-maila hauen artean aukeratu ahal izango duela:

### 1. Segregazio-mailak

- Kontu Orokorra: kontu hauek erakusten dute Kutxabankek, erakunde parte-hartzaile gisa, bere xehetasun-erregistroen kontuetan hirugarrenen izenean erregistratuta mantentzen duen baloreen saldo globala.

- Kontu indibiduala: kontu hauek Kutxabankek BEZEROa titular duten baloreen saldoa islatzen dute, bezeroak erabaki badu kontua eramatea kontuen erregistro nagusian. Kutxabank, erregistro nagusian irekitzea eskatzen duen erakunde parte-hartzaile gisa, kontu hori kudeatzeaz arduratuko da, eta BEZEROarekin adostu beharko ditu bertan idatzitako baloreak erabiltzeko terminoak eta baldintzak.

### 2. Maila bakoitzaren kostuen azalpena

BEZEROak bere gain hartuko ditu balore-kontua mantentzeko ezarritako kostu hauek:

Erregistro nagusian:

- Kontu Orokorra: ez dago kosturik bezeroarentzat.

- Kontu indibiduala: 150 € hilero kontu bakoitzeko; une bakoitzean indarrean dagoen BEZa gehitu beharko zaio. Zenbateko hori balore-kontratuari lotutako aurrezki-kontuan zordunduko da.

Xehetasun-erregistroan:

Ez dago kosturik bezeroarentzat.

### 3. Ondorio juridiko nagusiak

BMLk titular legitimo gisa aitortzen du Iberclear-en erregistroetan edo Kutxabankek erregistroetan inskribatuta dagoen pertsona. Kontuen segregazioak, beraz, ez die eragiten erregistratutako baloreen legezko naturari edo titularrak Kutxabank jaulkitzailearen nahiz hirugarrenen aurrean duen posizioari.

Horri dagokionez, BMLren 13.1 artikulua honako hau ezartzen du:

"Kontabilitate-erregistroko idazpenetan legitimazioa duen pertsona titular legitimoa dela joko da, eta, horren ondorioz, entitate jaulkitzaileari eskatu ahal izango dio bere alde egin ditzala baloreak eskubidea ematen duen prestazioak kontuko idatzoharren bidez."

Eskubide horiek eraginkorrak izan daitezten, alde aurretik aitortu behar da eskubidea erregistro-sistemako dagokion kontuan, BMLren 13.3 artikulua aurreikusten duen bezala:

"Titularrari dagozkion eskubideak eskualdatzeko eta baliatzeko, alde aurretik haren alde inskribatu beharko da"

Garrantzitsua da, halaber, BMLren 11. artikulua 3. paragrafoan fede oneko eskuratzailaren alde emandako babesa nabarmentzea:

"Kostu bidez adierazitako baloreak hirugarren batek eskuratzen baditu kontabilitate-erregistroko idazpenen arabera balore horiek eskualdatzeko legitimazioa duen pertsona baten kontuan idatzoharren bidez, ez da erreibindikatzera behartuta egongo, salbu eta eskuratzearen unean fede gaitoz edo hutsegite larri jardun badu."

### 4. Kaudimengabeziaren arloan aplikatzekoa den araudia

Kaudimengabeziari dagokionez, honako hauek aplikatuko dira: baloreak ordaindu eta likidatzeko sistemari buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Legea (98/26CE Zuzentarauaren transposizioa), uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legea eta Balore Merkatuaren Legearen 15. eta 102. artikulua, bai eta une bakoitzean aplikatu beharreko araudia ere.

## 5. Emandako informazioaren laburpen-taula

Erregistro Zentraleko kontu-mota	38. eskakizuna CSDR	Bezeroarentzako kostua	Lege-ondorioak	Erakunde parte-hartzailearen konkurtsu-egoera	Arau-erreferentziak
Hirugarrenen kontu orokorra	Kontu globaletako segregazioa - Kutxabanken xehetasun-erregistroetan dagokion banakatzea eskatzen du.	0,00 €	Xehetasun-erregistroetan izena ematetik eratorritako titulartasuna aitortzen da entitate parte-hartzailearen kargura	Titularrak lekualdatzeko eskubidea du. Defizita badago: hirugarrenen kontu orokorretan hainbanaketa bidezko banaketa	BML: 9, 15 eta 102 878/2015 ED: 32
Hirugarrenen kontu indibiduala	Segregazioa kontu indibidualean	150,00 € gehi indarrean dagoen BEZa	Titulartasuna aitortzen da	Titularrak lekualdatzeko eskubidea du	BML: 9, 15 eta 102 878/2015 ED: 32

Halaber, BEZEROAK eskura izango du baloreen babesari buruzko informazio guztia [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunean

# baldintza orokorren eranskina

## A1. Sinadura digitalizatua

Kontratu honen titularrek baimena ematen diote Kutxabanki beren sinadura jasotzeko idazketa digitalizatzen duten gailuen bidez. Edozein dokumentutan sartutako sinadura digitalizatuak paperean eskuz idatzitako sinaduraren balio bera izango du.

## A2. Sinadura telematikoa

Kanal ez-presentzialen bidez (Internet, mugikorra, telefonoa) egindako eragiketa guztietarako, Bezeroa autentifikatzeko unean indarrean dagoen sarbide-prozesua balidatuko du Kutxabankek. Eragiketa batzuetarako, autentifikazio-protokolo gehigarriak eskatuko ditu Kutxabankek. Bezeroak edozein kanal ez-presentzialetan eragiketak egitean erabiltzen duen gako pertsonala kontratu-sinaduratzat joko da eskuz idatzitako sinaduraren balio berarekin. Kutxabankek sarbideko sistema alternatiboak edo osagarriak jarri ahal izango ditu pasoko sistema berri batekin, eragiketaren segurtasuna babesteko beharrezkotzat jotzen diren kontrolekin.

Sinaduraren bat kanal ez-presentzialekin egiten bada, bai beren jardura komertzialarekin edo enpresarialarekin nahiz lanbidearekin lotuta ez dagoen helburu batekin jarduten duten pertsonak bai jardura komertzialarekin nahiz enpresarialarekin lotu gabe eta irabazi-asmorik gabe jarduten duten persona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek hamalau egun naturaleko epea izango dute kontratua atzera botatzeko. Horretarako, Kutxabankek inharmanetan jar daitezke 900 44 55 66 telefonoaren bidez edo Kutxabanki idatziz posta ziurtatu urgentez helbide honetara: Kutxabank telefono-zerbitzua, Kale Nagusia 30-32, 48009 - Bilbo.

Eskubide hau ez da aplikatuko: finantza-merkatuen gorabeheren mendeko prezioa duten zerbitzu finantzarioei buruzko kontratuetan, hornitzaileak kontrola ezin ditzakeenak eta bertan behera uzteko eskubidea erabiltzeko aukera ematen duen epearen barruan (dibisak aldatzea, diru-merkatuko tresnak, balore negoziagarriak, IKEetako partaidetzak, geroko kontratuak eta interes-tasen gaineko trukatzak, indizeei, prezioei edo interes-tasei erreferentzia egiten dieten kontratuak, lotutako kontratuetako negoziatutako batek gutxienez, aurretik aipatutako transakzioen bat ekarriko duena, etab.); bi alderdiek osotasunean exekutatu dituzten kontratuetan Bezeroak hala eskatuta eta bezeroak berak atzera egiteko eskubidea erabili aurretik zein transferentzia-aginudetan eta kobrantza-kudeaketaren eragiketetan; Notarioaren parte hartzearekin egindako bezeroen deklarazioak eta gaiari buruzko indarreko legean aurreikusten diren pensio-planak zein gainerako kontratu eta produktuak. Eskubide hori erabiltzeko eskaintako zerbitzuak edo sortutako interesak –hala dagokionean– ordaintzea dakar.

Sinadura telematikoa honen bidez, Bezeroak espresuki eskatzen dio Kutxabanki kontratu hau formalizatzea urrutiko komunikabide-teknika bat erabiliz, kontratuaren baldintzak eta informazioa paperezko euskarrian edo beste euskarri iraunkor batean eskuratzeko aukera ematen ez duena kontratuaren sinadura edo eskaintzaren onarpena baino nahikoa denbora lehenago.

## A3. Kontratuaren eraginkortasunik eza

Kontratuak ez da eraginikorra izango kontratuko titular guztiek espresuki onartu arte baldintza hauek beren eskuzko sinaduraren edo sinadura telematikokoaren bidez, kontratuan aurreikusitako moduan. Halaber, kontratu honen eraginkortasun-datatzat hartzen da kontratuko azken esku-hartzaileak sinatutako eguna. Kontratuaren titularrek 14 eguneko epea dute kontratu hau onartzeko. Epe hori iragandakoan titular guztiek sinatu ez badute, Kutxabankek ulertuko du kontratuaren titularrek atzera bota dutela, eta, beraz, ez da eraginikorra izango.

Baldintza hauek aldatuko balira titular guztiek kontratuari esanbidezko adostasuna eman aurretik, kontratua baliogabetzat joko litzateke.

## A4. Kontratu-harrera

Kontratu-dokumentu honen harrera fisikoa edo elektronikoa hautatu ahal izango du titularrak.

## A5. Bezeroarekiko komunikazioak

Bezeroak, kontratu-harremanaren edozein unetan, Kutxabanketik eskura dezake –paperean edo beste euskarri iraunkor batean– edozein kontratuaren baldintza orokorren kopia bat, horiekin batera eranstean diren kontu aktiboetako eta pasiboetako kargu- eta abonu-eragiketei aplikatzekoak diren balorazio-arau orokorrak barne, eta, gainera, Bezeroaren esku daude Kutxabanken webgunean, [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es), edozein unetan kontsultatu ahal izateko.

Kutxabank bere Bezeroekin komunikatuko da erabilgarri duen edozein bide telematikoa edo elektronikorekin, baita Kanal Anitzeko Bankuaren zerbitzu operatiboekin ere: Online banka, mugikorra, etab. Eta SMS mezuak eta bestelako mezuak ere bidali ahal izango dira bankuko erregistroetan agertzen diren Bezeroaren edozein helbidetara, betiere segurtasun-baldintzak eta araudi aplikagarria eta/edo kontratu bidezko harreman egokiak errespetatuz. Bezeroak edozein unetan eskatu ahal izango dio Kutxabanki ez bidaltzeko mezurik bitarteko telematikoa edo elektronikoa bidez. Kasu horretan, Kutxabankek bidalketa-gastuak kobratu ahal izango dizkio. Aurrekoa gorabehera, Kutxabankek –arrazoi operatibo eta/edo teknikoengatik eta indarrean dagoen lege-arauditik eratorritako eskakizunengatik– kanal alternatiboak aukeratu ahal izango ditu (adibidez, posta arrunta); kasu horretan, ez ditu kostu horiek jasanaraziko, araudian aurreikusitako kasuetan izan ezik. Bezeroak bankuari jakinarazi ahal izango dio, halaber, uneko kontratuari buruzko edozein komunikazio, zalanitza edo kontsulta bankuak haren eskura jarritako bideak erabiliz: bulegoak, online banka, etab. Gainera, Kutxabankek bezeroak jakinarazi dizkion komunikabide telematikoa edo elektronikoa erabili ahal izango ditu bankuak oharrak, alertak eta/edo aurrez jasota ez dagoen bestelako informazioa bidaltzeko, eta bankuaren iritziz bezeroaren interesekoak izan daitezkeenak, sinatutako kontratuen izapidetzei buruzkoak nahiz horiek erabiliz egindako eragiketei buruzkoak.

Bezeroa gaztelaniaz komunikatu ahal izango da Kutxabankek, eta bai dokumentuak eta bestelako informazioa jaso ere, eta, autonomia-erdegokoko araudiak hala aurreikusten duen kasuetan, baita Espainiako Estatuak ofizialtzat aitortuta dituen beste hizkuntzetan ere.

## Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

<b>Arduraduna</b>	Nortasuna: Kutxabank, S.A. Posta-helbidea: Kale Nagusia 30-32, 48009 - Bilbo. Posta elektronikoa: <a href="mailto:info@kutxabank.es">info@kutxabank.es</a> Datuen Babeserako Ordezkararen helbidea: <a href="mailto:dpo@grupokutxabank.com">dpo@grupokutxabank.com</a>
<b>Datuen tratamenduari helburu nagusiak eta legitimazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontratazio-eskaeren azterketa, kontratazio aurreko neurrien aplikazioa eta arriskuen balorazioak egitea.</li> <li>- Kontratu-harremana burutzea, kudeatzea, kontrolatzea, mantentzea eta eguneratzea.</li> <li>- Kontabilitate-, lege-, zerga- eta administrazio-betebeharrak betetzea, kreditu-ahalmenari eta kapital-zuritzearan eta/edo bestelako iruzurrezko jokabideen prebentzioari lotutakoak barne.</li> <li>- Interes legitimoko printzipioak edo, zure kasuan, jasotzaileen onespenez babestutako komunikazio komertzialak igortzea.</li> <li>- Scoring eta arrisku-ebaluazioak tratamendu gehigarriak, interes legitimoko printzipioak edo, zure kasuan, interesdunen onespenez babestuta, erabilitako datu-baseen arabera.</li> </ul>
<b>Hartzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Autoritate arautzaile eta ikuskatzaileak (Espainiako Bankua eta Europako Banku Zentrala, adib.)</li> <li>- Europar Batasunaren barneko nahiz kanpoko beste herrialdeetako agintariak, erakunde ofizialak eta Taldeko sozietateak, terrorismoaren finantzaketaren eta antolatutako delinkuentzia modu larrien kontrako borrokaren eta kapital-zuritzearan aurkako prebentzioaren testuinguruan.</li> <li>- Espainiako Bankuaren Arriskuei buruzko Informazio Zentrala, eta diru-betebeharrak betetzeari buruzko fitxategiak, halako ez-betetzerekin egonez gero.</li> <li>- Auzitegiak eta Estatuko Seguratasun Indar eta Kidegoak.</li> <li>- Tramitazioetan kolaboratzen duten beste erakunde batzuk (notarioak, erregistro publikoak...).</li> </ul>
<b>Eskubideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Interesdunak erreklaiazio bat aurkeztu ahal izango du kontroleko agintariaren aurrean, eta datu pertsonalei dagokionez sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramateko eta erabaki individual automatizatuaren xede ez izateko eskubideak baliatu ahal izango ditu, aurrez adierazitako tratamendu-arduradunaren egoitza sozialera idatziz zuzendutako komunikazio bidez.</li> </ul>
<b>Jatorria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzenean interesdunak, haren legeko ordezkaririk edo ahalordedunak</li> <li>- Grupo Kutxabankko beste enpresa batzuen bidez</li> <li>- Lankidetzat-hitzarmenak sinatutako beste entitate publiko eta pribatu batzuetatik lortuta.</li> <li>- Publikoak eskuragarri dituen iturriak.</li> </ul>
<b>Informazio gehigarria</b>	Datuen babeserako gure politikari buruzko informazio gehiago eskuragarri esteka honetan: <a href="http://www.kutxabank.com">www.kutxabank.com</a>

Indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorritz, eta Datuak Babesteko Politikan horri dagokionez adierazitakoari kalterik egin gabe, kontratu honen kariaz espresuki jakinarazten zaizu:

- Kreditu- edo kontratazio-arloko arrisku-balorazioak egingo ditu Kutxabankek, eta kontratazio horren bideragarritasuna aztertzeko beharrezkoak diren kreditu-ahalmenaren profilak ere egin ahal izango ditu. Halako kasuetan Kutxabankek, kaudimena eta interesdunaren eskaerari dagozkion eragiketa-arriskuak aztertzeko legezko betebeharrak betetzeko, ondare-kaudimenerari eta kredituari buruz iturri desberdinetatik jasotako informazioa (Espainiako Bankuaren Arriskuei buruzko Informazio Zentraletik jasotakoa barne) tratatu ahal izango du, eta barneko zein kanpoko datu-baseen kontsultan, datu soziodemografikoen edo analisi estatistikoen arabera profilak sortu ahal izango ditu.
- Kutxabankek agintari, kontrol eta ikuskapeneko erakunde eta zerga-aroko agintari eskudunei eman ahal izango dizkie bezeroaren datuak. Bereziki, baina ez ezinbestean, banku- eta finantza- arloko erakundeek emango zaizkie datuak, Espainiako Bankuaren Arriskuei buruzko Informazio Zentralari barne, eta zuzenean ala zeharka kreditu-arriskuak izan ditzaketen pertsonak identifikatzea izango du helburu.
- Bezeroak ez ordainduz gero, diruari dagozkion betebeharrak betetzeari eta ez-betetzeari buruzko fitxategietara komunikatu ahal izango dira datuak, datuen babeserako araudian ezarritako moduan. Era berean, kaudimen ekonomikoak egiaztatzeko beharra izanez gero, Kutxabankek ondare-kaudimenerari eta kredituari dagozkion fitxategi komunak kontsultatu ahal izango ditu, Europako Esparru Ekonomikoaren barnean zein kanpoan kokatzen diren erakundeak. Kontsultu hauetan oinarrituta, Kutxabankek erabakiak hartu ahal izango ditu, horien artean, kontratazioa ukatzearena.